

Identifikazio nazionala erlatibizatuz. Euskal nazionalismoaren diskurtso eta ideologiez

Gorka Etxebarria Dueñas*

RESUMEN LABURPENA ABSTRACT

Este artículo propone una crítica a una extendida interpretación historiográfica académica según la cual el nacionalismo vasco es esencialista, a partir del pensamiento de Sabino Arana. En ese sentido considera que la nación es una emoción que busca la identificación comunitaria, sobre la cual cada movimiento político nacionalista proyectaría su ideología. En la crítica, cuestiona la división entre nacionalismos cívicos y étnicos, y profundiza en la ideología de Sabino Arana. Por último, pretende extender un debate sobre las diferentes formas que puede adoptar el tratamiento historiográfico de la nación vasca.

Artikulu honek Sabino Aranaren pentsamendutik abiatuta euskal nazionalismoa esenzialista bezala ulertzen duen interpretazio historiografiko akademiko hedatuari kritika bat proposatzen du. Horretarako, nazioa komunitate identifikaziorako emozio bezala ulertzen du, bertara proiektatuko lukeelarik mugimendu politiko nazionalista bakoitzak bere ideologia. Kritikan, nazionalismo zibikoaren eta etnikoen arteko sailkapena zalantzan jartzen du eta Sabino Aranaren ideologiaren inguruan sakontzen du. Azkenik, euskal nazioaren trataera historiografikoak har ditzakeen bidez eztabaida zabaldu nahi du.

This article suggests a criticism to the extended academic historiographical view about the Basque nationalism as essentialist and as a consequence of Sabino Arana's thought. For that purpose, understands the nation as a community-identification emotion, towards different nationalist movements would project their ideologies. With the criticism, questions the classification of nationalisms as civic or ethnic, and goes in depth about Sabino Arana's thought. Finally, aims to open a debate upon different possibilities on the historiographical treatment about the Basque nation.

PALABRAS CLAVE GAKO-HITZAK KEY WORDS

Nacionalismo vasco, historiografía, Sabino Arana, emoción.
Euskal nazionalismoa, historiografia, Sabino Arana, emozioa.
Basque nationalism, historiography, Sabino Arana emotion

*Universidad del País Vasco/
Euskal Herriko
Unibertsitatea UPV/EHU.

Fecha de recepción/Harrera data: 28/10/2014
Fecha de aceptación/Onartze data: 14/05/2015

Artikulu honen helburua, euskal nazionalismoaren azterketa historiografikoa ezaugarritzen duen marko teorikoaren inguruan hausnarketa eta kritika bat egitea da. Horretarako abiapuntua EHUko historiografia akademikok gaiaren inguruan ekoiztutako bi lan garrantzitsu izango dira. Batetik, José Luis de la Granjaren *El nacionalismo vasco. Claves de su historia*¹, eta bestetik, Santiago de Pablo, Ludger Mees eta Jose Antonio Rodríguez Ranz irakasleen *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*². Lehen, dibulgaziora begira eginiko sintesi labur bat da eta bigarrena, EAJren historiaren inguruan egin den lanik osoena, zeinak bere izenburuan azalduko dugun marko teorikoaren zutabeetako bat jasotzen baituen. Lan horiek irakasle eta ikertzaile aunitzek aurretik egindako lana jasotzen eta sintetizatzen dute eta aldi berean euskal nazionalismoaren inguruan historiografia profesionaletik egiten den interpretazio orokorraren isla dira.

Jarraian, euskal nazionalismoaren interpretaziorako marko teoriko horren oinarriak laburbilduko ditugu, zeintzuek Sabino Aranaren (1865-1903) figuran eta hark nazioa ulertzeko zuen eran baituten abiapuntua. Autore gehienek arabera, hauek dira euskal nazionalismoaren oinarriak, Sabino Aranaren pentsamenduak betiereko eraginez berretsiak: 1) nazioaren kontzeptu esentzialista bat du, erromantikoa, 2) kontzeptu horrek aurkakotasun dikotomiko bat sortzen du euskal eta espainiar nazioen artean, eta 3) aurkakotasun horretan sakontzearen edo era malguagoan ulertzearen ondorio dira euskal nazionalismoaren parte bezala hartu diren mugimendu politiko-sozial ezberdinak.

Beste era batera esanda, euskal nazionalismoa nazioaren kontzeptualizazioaren baitan barnebiltzen den ideologia lez ulertzen da eta horren arabera, bere bariazioak erradikala, moderatua eta heterodoxoa bezala zehazten dira. Hiru horiek, nazioa ulertzeko modutik eratorriak liriateke eta espainiar nazioarekiko duten aurkakotasun mailaren arabera tipifikatuak dira.

Jarraian ematen diren ziten bitartez, aipatu autoreek beren obretan ematen duten eta goian laburtu dugun ikuspuntua jasotzen da:

1 José Luis DE LA GRANJA: *El nacionalismo vasco: claves de su historia*, Madrid, Anaya, 2009

2 Santiago DE PABLO, Ludger MEES y José Antonio RODRÍGUEZ RANZ: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*, Crítica, Barcelona, 1999. Edizio berritua: Santiago DE PABLO y Ludger MEES: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco (1895-2005)*, Crítica, Barcelona, 2005.

La doctrina de Arana sigue la concepción de nación del romanticismo alemán: las naciones tienen una esencia y existen desde siempre. Su nacionalismo es esencialista³.

Este carácter reactivo y su concepción esencialista de la nación configuraron al nacionalismo vasco como dualista y antitético, es decir, como un movimiento alimentado por la tensión entre la afirmación del *yo* (la nación vasca) y la exclusión del *otro* (el enemigo, España)⁴.

El legado de Arana ha pervivido en las dos grandes corrientes en las que se ha organizado este movimiento: la moderada del PNV y la radical de Aberri a ETA y Herri Batasuna⁵.

un conflicto estructural que iba a acompañar al nacionalismo como su propia sombra: la confrontación entre un proyecto radical e independentista y otro autonomista y pragmático. La historia del PNV va a ser en gran medida una cohabitación pendular –unas veces pacífica y otras conflictiva– de estos dos polos⁶.

Tensión entre ortodoxia radical y praxis política pragmática (...) iba a ser principal señal de identidad del PNV a lo largo de su historia. Una dialéctica que se ha revelado como la verdadera *pedra filosofal* del movimiento nacionalista⁷.

Salvo la tendencia heterodoxa y no aranista de ANV y Euskadiko Ezkerra, que unió la autonomía vasca con la democracia española, el nacionalismo vasco, a diferencia del catalanismo y del galleguismo, ha carecido de un proyecto de España y en ocasiones ha formulado un proyecto contra España. Ello obedece a la supervivencia del antiespañolismo, el antagonismo maniqueo Euskadi/España, que ha sido la señal de identidad más conspicua y constante del legado sabiniano⁸.

Lan honen garapenarekin defendatu nahi dugun ideia beste bat da, honakoa: nazioa ez da ideologia iturri, baizik eta ideologiaren jopuntu den emozioa. Nazioa da Aro Garaikidean pertsonentzako erreferentzia emozional kolektibo nagusia, eta bakoitzaren ideologia bertara proiektatzen dugu. Gure ideologia ez du nazioa ulertzeko moduak baldintzatzen, alderantziz baizik. Nazioa gure ideologia bata edo bestea izatearen ondorioz, modu batean edo bestean ulertzen dugu. Zentzu batean, nazioak katalizatzaile bezala funtzionatzen du⁹. Katalizatzaile horrek errealitatearen interpretazioak eta horren araberrako ekinbide

3 DE LA GRANJA, *op.cit.*: 18

4 DE PABLO y MEES, *op. cit.*: 11

5 DE LA GRANJA, *op. cit.*: 119

6 DE PABLO y MEES, *op.cit.*: 21

7 *ibid.*: 31

8 DE LA GRANJA, *op.cit.*: 119

9 José Manuel MATA LÓPEZ: *El nacionalismo radical vasco: discurso, organización y expresiones*, EHU, Leioa, 1993, págs. 177-178.

politikoa «azeleratuko» lituzke, nazioarekin sentitzen den harreman emozionalaren bitartez.

Idea hori garatzeko bidean, lehenengo geldiduna nazionalismoaren ikerketarako ezinbesteko mugari izan den Benedict Andersonen *Imagined Communities* lanean egingo dugu. Horrela dio bere obraren sarreran: «me parece que se facilitarían las cosas si tratáramos el nacionalismo en la misma categoría que el “parentesco” y la “religión”, no en la del “liberalismo” o el “fascismo”»¹⁰. Gure egingo dugu baieztapen hori eta beraz, nazionalismoak ordezkatzeko duen nazio sentimendua ez dugu ideologia politiko bezala ulertuko (neoliberalismoa, leninismoa edo nazional-katolizismoa izan daitezkeen eran), baizik eta komunitate sentimenduen adierazpen bezala: inperioa, komunitate erlijiosoak, hizkuntza komunitatea, jendetaria unibertsala, auzoa, futbol taldea, edo beste diren edota izan diren legez. Noski, nazioa ideologia politikoaren parte da, baina beste kategoria analitiko batean dago. Zentzu horretan, euskal nazionalismoa zein espainiar nazionalismoa aztertu dituen Fernando Molinak, gure ustetan definizio txukuna eta osatua ematen du nazio sentimenduen inguruan, osorik eskaintzen dena jarraian:

La nación es la identidad social más importante de la época contemporánea. Vino a dar respuesta a la intemperie ideológica suscitada por la crisis del Antiguo Régimen y al surgimiento de una sociedad anónima y móvil, articulada en estados industriales y burocráticos, basada en relaciones impersonales y abstractas, regida por el cálculo y el cambio tecnológico, huérfana de las relaciones tradicionales de comunidad, y sometida a una creciente ampliación de la participación política y de la administración del Estado. La destrucción sistemática de raíces étnicas, religiosas y culturales que llevó a cabo el liberalismo fue equilibrada por la nación, que se convirtió en el sucedáneo de las antiguas lealtades grupales y fue utilizada como paliativo emocional del vértigo generado por la modernidad. Nació como una acertada respuesta al problema de la legitimación del ejercicio del poder en las nuevas sociedades liberales desacralizadas. Cuando éste ya no podía justificarse en la elección divina, ofrecía una nueva fuente de legitimidad en el mito del pueblo y de su soberanía primordial en tanto que tal nación¹¹.

Beraz, nazioa, ideologiaren garaia diren XIX. eta XX. mendeetan identitate emozional kolektibo nagusi bezala hartuko dugu gure lanean. Hau da, nazioa ideologiaren beren burua proiektatzeko edukiontzia

¹⁰ Benedict ANDERSON: *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de Cultura Económica, México, 1993. Pág. 23.

¹¹ Fernando MOLINA APARICIO: “Modernidad e identidad nacional. El nacionalismo español del siglo XIX y su historiografía”, *Historia social*, nº 52, 2005, págs. 147-171, págs. 147-148.

da, erreferentzia emozionala. Eta ideologia ezberdinek, oso modu diferentean ulertuko dute zer den nazioa eta zein den bere zentzua.

Azkenik, sarrera honetan ezberdintasun oso garrantzitsu bat planteatu nahi dugu, jada Molinaren aipuarekin aurreratu duguna: nazio sentimendua eta nazionalismoaren artekoa. Aurretik azaldutakoa nazio sentimenduari dagokio, baina askotan horixe bera eta nazionalismoa sinonimoak balira legez ulertzen eta erabiltzen ditugu. Auzi hori zehazteko, Igor Ahedoren doktore tesira joko dugu. Iparraldeko euskal nazionalismoari buruzko lanean, lehenik eta behin nazionalismoari buruzko hausnarketa teoriko bat egiten du eta bertan nazionalismoa eta nazio sentimendua ezberdintzen ditu, horretarako Smithen obrara¹² joz:

El propio Smith diferencia *un movimiento ideológico organizado de nacionalismo, por un lado, y un sentimiento más difuso de pertenencia nacional, por otro*. Una distinción suficientemente clara *como para permitirmos tratar el concepto de consciencia o sentimiento nacional separadamente del de nacionalismo, aunque en la práctica suela haber algún grado de solapamiento entre ellos*¹³.

Azaldu dugu Molinaren definizioaren bitartez zer den guretzako nazio sentimendua. Nazionalismoa kontzeptua ezaugarritzeko orduan, Ahedoren proposamena gure egingo dugu: nazionalismoa mugimendu politiko antolatu bat da, nazioa bere erdigunean jartzen duena eta helburu zehatzak eta ideologia bat dituena.

Laburbilduz, nazio sentimendua komunitate identifikaziorako emoziorik hedatu eta orokorra da Aro Garaikidean, eta nazionalismoa, nazio sentimendua bere diskurtsoaren erdigunean jartzen duen mugimendu politiko antolatua¹⁴. Horrekin ez dugu esan nahi eskusiboki nazioa dutela beren ideologiaren baitan mugimendu politiko nazionalistek, ezta gutxiago ere. Zalantzarik ez dago, adibidez, Kubako iraultza mugimendu nazionalista bat izan zela (askapen nazionala bere ideologiaren erdigunean zuen heinean), edota gerra arteko garaiko faxismoen kasua (bertan erdigune ez ezik, nazio sentimendua izaera totalizatzailea zuen), edo ondorengo Israeleko Estatuaren eraikuntzarena, edo Italiako batasun prozesuarena XIX. mendean. Baina, hemen ere ez dago zalantzarik, ideologia politiko oso ezberdinak zeuden nazionalistak ere baziren mugimendu politiko horien baitan. Azken finean, nazionalista, mugimendu politiko batek bere

12 Anthony SMITH: *Nacionalismo: teoría, ideología, historia*, Alianza, Madrid, 2004.

13 Igor AHEDO GURRUTXAGA: *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2006, pág. 30.

14 *ibid.*: 28-30

burua definitzeko erabiltzen duen adjektibo bat da, baina autodefinizio horren atzean, gauza erabat ezberdinak egon daitezke:

A pesar del sufijo –ismo, el nacionalismo no es una ideología. Aparte de postular el principio *Gemeinschaft* de que la propia nación es la unidad humana más importante y merecedora de fidelidad sin flaqueza, el término carece notoriamente de contenido. Por generaciones se han acomodado a él monárquicos, republicanos, fascistas, leninistas, maoístas, y lo que sea, a veces simultáneamente¹⁵.

Gauza argia dirudi nazio sentimenduen eta mugimendu nazionalisten arteko ezberdintasunak, baina ez da zail horiek korapilatzea. Lan honetan dagokigun gaia aintzat hartuz, euskal nazionalismoaren kasuan nazio sentimendua eta nazionalismoa etengabe nahasten dira. Are gehiago, paradoxikoki, historiografia akademikoak aspalditik lantzen duenaren –nazionalismoek nola garatu zituzten nazioak– kontrara, askotan pasatzen da ulertaraztera nazio sentimendu batak edo besteak sortzen dituela nazionalismoak. Kontraesan horren abiapuntua, gure ustetan, dikotomia normatibo teoriko bat onartzean dago: nazionalismo zibikoa eta nazionalismo etnikoaren arteko ezberdintasunarena.

Berriro joko dugu lanaren sarreran aipatu euskal nazionalismoaren inguruko bi erreferentziatzeko lanetara. Bertan, honakoa diote Sabino Aranaren nazioa ulertzeko moduez:

La doctrina de Arana sigue la concepción de nación del romanticismo alemán: las naciones tienen una esencia y existen desde siempre. Su nacionalismo es esencialista: sus esencias fundamentales son la religión católica y la raza vasca, identificada por los apellidos. Ambas constituyen los dos pilares fundamentales de su concepción de nación, que no tiene en cuenta el elemento subjetivo de la voluntad de los ciudadanos¹⁶.

Saia gaitezen ulertzen zer esan nahi den Sabino Aranaren nazioa ulertzeko duen modua erromantikoena dela esaten denean. Horretarako, *El péndulo patriótico* aipatu obraren lehen edizioko pasarte bat jasoko dugu, zeinetan gehiago sakontzen den ideia horretan:

Esta concepción esencialista de la nación se sitúa en las antípodas del concepto de nación heredado de la Revolución Francesa, según el cual el

2. NAZIONALISMO ZIBIKOA VERSUS NAZIONALISMO ETNIKOA?

15 Walker CONNOR: 1989): “Democracy, Ethnocracy, and the Modern Multinational State: paradoxes and tensions”, en Pérez-Agote (imp.), *Sociología del nacionalismo*, EHU, Leioa, 1989, págs. 111-130. Hemen aipatua: MATA, *op.cit.*, pág. 53.

16 DE LA GRANJA, *op. cit.*: 18

principio constitutivo de una nación es la conciencia, la solidaridad, la libre voluntad de sus individuos de constituirse en comunidad nacional. Esta concepción esencialista y providencialista no era, pues, patrimonio exclusivo de Sabino Arana, ni constituía una excepción en el panorama europeo del siglo XIX. Su adopción no fue además casual, y obedeció en última instancia a la propia lógica interna de la construcción sabiniana, que hacía pivotar su proyecto de restauración nacional en la simbiosis de la afirmación objetiva del «yo» y la exclusión del «otro», a quien se percibía como enemigo para la preservación de esa identidad nacional. El esencialismo ofrecía cobertura conceptual a una construcción que, por el contrario, chocaba frontalmente con la concepción voluntarista de nación. Apelar a la voluntad del conjunto de la sociedad vasca como principio constituyente de su identidad nacional resultaba incongruente con un movimiento cuyo proyecto político se sustentaba, precisamente, sobre el principio de exclusión de una parte de esa sociedad¹⁷.

Azaltzen denaren arabera, nazioa ulertzeko bi modu leudeke: bata norbanakoen nahi askearen adierazpena eta bestea bazterketan oinarritutako esenzialista. Eta bata frantses iraultzarekin lotzen den bitartean, bestea alemaniar erromantikoeekin erlazionatzen da. Hitz egin dezagun, zer edo zer sakonago, horren inguruan.

Batetik, frantses iraultzak sortzen duen identitate nazional-zibikoa, generoaren inguruko ikerketa historiografikoak erakutsi digunez, bazterketan oinarritzen da. Hau da, gizon askeen elkarte publikoak, aske eta publiko ez diren emakumeen bazterketa du ernamuin, hots, askatasunaren positibotasuna, askea ez denaren negatibotasunean oinarritzen da. Rousseauren kontratu soziala, beren grina sexuala etxean dauden emazteen sedukzio ahalmenari esker ordenatu duten familia-buruen artekoa da, eta nazio zibikoa emazteen bazterketan oinarritzen da.

Berdin gertatzen da, adibidez, langile mugimenduaren sorrerarekin. Bere lehen adierazpen politiko autonomoan, kartismoan, egiten den lehen gauza langilea nor den eta nor ez den zehaztea da, hots, «la afirmación objetiva del *yo* y la exclusión del *otro*». Esaterako, honakoa idazten zuen Feargus O'Connor (1796-1855) lider kartistak *Northern Star* aldizkarian, 1846ko abuztuaren leheneko zenbakian:

That Chartism which has fustian jackets, blistered hands and unshorn chins as its emblems, has been denounced by those who would make it a thing of refinement and respectability, while we repeat the fact to our readers that Chartism means poverty¹⁸.

17 DE PABLO *et. al.*, *op. cit.*, pág. 37.

18 Hemen aipatua: Aruna KRISHNAMURTHY (ed.): *The Working-Class Intellectual in Eighteenth- and Nineteenth-Century England*, Ashgate, UK., 2009, pág. 121.

Kartismoa panazko jaka darabiltenak dira, eskuetan urbatuak dituztenak, pobreak; ez besteak. Adibide horiekin esan nahi duguna da *niaren* baieztapena eta *bestearen* bazterketa identitate politiko modernoan oinarritzko elementua dela, eta inondik inora ez datorrela nazioaren kontzepzio erromantiko batetik, hain zuzen ere, horri kontrajartzen ei zaion nazio zibikoa ere bazterketan oinarritzen delako, esan bezala. Baina aipatu liburuetan, banaketa normatibo hori oinarri teoriko bezala hartzen da. Horrela esaten zaigu Sabino Aranaren nazioaren kontzepzioak euskal nazionalismoa dualista eta antitetiko egin zuela, «alimentado por la tensión entre la afirmación del *yo* (la nación vasca) y la exclusión del *otro* (el enemigo, España)¹⁹». Kontua da, ez dagoela *beste* nazioak *bere* sentimendu nazionalen integratzen dituen naziorik; nazio guzti guztiak daude *bestearekiko* mugaren gainean eraikiak. Hain zuzen ere, sentimendu nazional guztiak unibertsaltasun abstraktu eta teoriko baten ukazioa baitira. Eta ilustrazio legez, euskaldun baten adibidea jarriko dugu, baina euskal mugimendu nazionalistak «gu» eta «besteak» banaketa sortu aurrekoa. Xenpelarrek (1835-1869) horrela abestu zuen 1859 inguruan, trenbideen eraikuntzari buruz, eta bertan, bera argi eta garbi da «español», eta «estranjero» nortzuk diren ere ez dago dudarik²⁰:

Dozena bat bertsotan
nai nuke esprikatu
zenbat estranjero dan
Españian sartu;
lanbide au oraindik
gutxi det usatu,
uts-egiteak arren
argatik barkatu.

Frantzes da italiano
kasta oiek nasi,
onera etorri ta
dabi Itza nagusi;
pegoiari ederki
lana egin arazi,
berak pikoarekin
beñere ez asi.

Frantzes asko ill dala
diote Austrian,
beraz ez da onezkero
frantzesik Frantzian;
danak emen ditugu
oraingo aldian,
burnizko bide traste
oien aitzakian.

Dala listero edo
dala sobrestante,
enpleo eroso bana
geienak badute;
jornalik aundienak
frantzesak dauzkate,
nunbait español danok
tontotzat gauzkate.

Esan beharra dago nazio etniko/zibiko zatiketa oso hedatua egon dela, batez ere Hans Kohn filosofo eta historialariak II Mundu Gerra bete betan

19 DE PABLO y MEES, *op.cit.*, pág. 11.

20 José María LARREA MUXIKA: *Euskaldungoa erroizturik*, Pamiela, Iruña, 1994, pág. 76.

The Idea of Nationalism: a Study in its Origins and Background (1944) argitaratu zuenetik. Bertan, bi nazionalismo mota (hemen ere ez da ezberdintzen nazionalismo eta nazio sentimenduaren artean) bereizten dira: Europako mendebaldeari lotua dagoena –arrazoia, askatasuna eta berdintasunean oinarritua–, eta Ekialderi dagokiona –irrazionaltasuna, mitoa eta xenofobian oinarritua²¹. Aipatu historiografia akademikoan, bigarrenarekin lerratzen da erabat euskal nazionalismoa. Izan ere, Rhin ibaiaren mendebaldean garatu arren, mendebaldeko nazionalismo zibikoetako baten aurka egiten ei du. Ramón Maíz, Universidade de Santiago de Compostelako zientzia politikoetako katedradunak, iritzi oso kritikoa plazaratu du aipatu dikotomia normatibo horren inguruan eta are gehiago, banaketa hori neutraltasunetik oso urrun dagoela argudiatzen du:

La dicotomía de nacionalismo cívico/étnico se formula desde un lugar muy preciso, desde una posición en absoluto neutra ni equidistante entre sus polos; a saber: desde el nacionalismo del Estado nación. Desde un nacionalismo implícito que da por supuesta la coincidencia entre fronteras políticas y culturales, entre estado y nación, y considera aproblemática la cuestión del demos, de quién conforma el pueblo sobre el que se alza la legitimidad del Estado. Y esto se realiza mediante la superposición y cohesión de dos códigos binarios complementarios. En primer lugar, a través de la incorporación y el refuerzo de una antítesis tan reductiva y falaz, como consolidada hasta hace bien poco en la historia del pensamiento político, filosófico y estético; a saber: una contraposición elemental y sin matices entre romanticismo e ilustración. En segundo lugar, mediante el contraste bipolar liberalismo/autoritarismo, calcado sobre el dualismo histórico-político Francia/Alemania, de tal suerte que a una idealización liberal de occidente, se contraponen un arquetipo autoritario de raigambre “orientalista” en el sentido de Edward Said: nosotros/ellos, civilizados/bárbaros, tolerantes/intolerantes etc.²².

Azken batean, dikotomia horrek ez ditu nazionalismo motak sailkatzen, baizik eta nazioak. Beraz, egiten duena da esentzializatu herrialde zehatz bateko sentimendu nazionala, berori historiari ateraz. Hots, ideologiek eta dinamika historikoez ez dute lekurik sailkapen horretan, etengabeko soka batean erlazionatuz Herderen (1844-1803) *Volksgeist* eta III *Reich* (1933-1945) eta berdin-berdin, gure gaira ekarriz, aurreko biekin lotuz Sabino Arana edota Herri Batasuna (1978-1998).

21 Harm KERN: “Civic and ethnic nationalism. A critical reassessment of theories and typologies”, Seminar Paper for the course *Human rights: Minority Protection and Conflict Management*, University of Graz, 2014, págs. 2-26.

22 Ramón MAÍZ SUÁREZ: “*Per modum unius*. Más allá de la dicotomía nacionalismo cívico vs. nacionalismo étnico”, en Gurrutxaga Abad (ed.): *El presente del Estado-Nación*, Servicio editorial de la UPV, Bilbao, 2004, págs. 107-128, pág. 11.

Historiatik kanpo maila normatiboan geratzen den soka hori apurtzeko, erromantizismora joko dugu. Maiz irakaslearen aipatu lanean bertan, gogoratzen da erromantizismoaren inguruko azken hamarkadetako lanek atzean utzi dutela ilustrazioa eta erromantizismoaren arteko elkar ezeztapena. Zentzu horretan, azpimarratu egin dira Novalis (1772-1801) edo Hölderlin (1770-1843) erromantikoen loturak mugimendu politiko errepublikazaleekin, organizismoaren kontzeptuari buruz erromantizismoak egiten zuen erabilera zehatza, eta arrazionalismoari eta iraultza frantsesari egiten zien kritikaren izaera ilustratua. Hain zuzen ere, Joxe Azurmendi EHUko filosofia katedradunak gaiari trataera sakona eskaini dio, Humboldtten (1867-1835) pentsamenduan hizkuntza eta pentsamenduaren arteko harremanetik abiatuta erromantizismoaren inguruan hausnartuz. Lan horretan, erromantizismoaren «karikaturizazioaren» garaia zehazten du:

Iraultzaren faskoa eta Napoleon-en ondoren, «erromantikoe» herria eta askatasuna kantatzen jarraituko dute, errestituzioaren aurka (Michelet, etab.). XIX. mendearen lehen erdia matxinada eta iraultzatxo «erromantikoz» betea egon da, arrakasta handirik barik. Azkenean lurrikarok dominatu eta berriro ordena tinkatu denean, Napoleon III.aren zesarismoarekin, burgesia handi jada lasaituak bitarteko aro guztia irrazional eta kaotiko deklaratu du, hots, atzoko iraultzak eta erromantizismoa, dena lardaskatu eta ezer lortu ez duten ameslari nahastaileak²³.

Eta alemaniar kasurako:

Bismarck-en Prusian burgesia triumfariak iraganeko izpiritu erromantiko kaotiko, indibidualista basati, muga guztien apurtzaile, «askatasunaren etsai»ari ezin zion oniritzi. Burgesia gilendar ordena-jale zintzoak oroz gain arrazoia maite du, erromantizismoa poetiko irrazional eragabea zen; errealismoa maite du, erromantizismoa ameslari fantastiko hutsa izan zen, ez zuen beste emaitzarik utzi bere kimerak baino; berak arrakastatsuki ordenan eta progresoa sinesten du, erromantizismoa, zurriburri sentimentera eta estrabagante, erreakzionarioa zen²⁴.

Modu horretan geratuko zen erromantizismoa frantses iraultzaren oinarrien eta aurrerapenaren aurkako mugimendu bezala, dikotomiarako ateak irekiz. Baina aipatu Azurmendiren liburuan sakonduz, hurrengo paragrafoetan dikotomiari aurre egiten saiatuko gara, pentsalari erromantikoei hain zuzen ere frantses esentzialismoaren aurka

23 Joxe AZURMENDI: *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao, 2007, pág. 21.

24 Joxe AZURMENDI: *Völkgeist, Herri Gogoa. Ilustraziotik nazismora*, Elkar, Donostia, 2007pág. 69.

egin zutela argudiatuz. Aro Modernoko fisika mekanikoarentzat eta Descartes (1596-1650) arrazionalismoarentzat, natura mekanikoa da, ordenatua, lege naturalek arautua. Lege absolutuak. Baina Kantek (1724-1804) arrazionalismo hutsari eginiko kritikak, arrazoimenaren mugak ezarri zituen eta subjektu eraikitzaile bat aldarrikatu, zeinaren bitartez eraikitzen baitugun gure naturaren ezagutza. Eta Kantek adimenaren kategoriak jarri zituen lekuan, Humboldt, besteren artean, hizkuntza jarri zuen: pertsonok hizkuntzaren arabera ezagutzen dugu natura, hizkuntza da gu eta naturaren arteko lotura eta sortzaile.

Eta arrazoimen unibertsal abstraktuaren aldean, hizkuntzak anitzak eta konkretuak dira, ekintza. Hain zuzen ere, ekintza hori jende izpirituaren adierazpena da. Beste era batera esanda, pertsona guztiok dugu jende izpiritua (unibertsala, naturala) baina hori, garai eta toki bakoitzean modu batean adierazten da, hizkuntza ezberdinetan. Beraz, arrazionalismoaren jendaki esentzial-abstraktu baten aurrez aurre, erromantizismoak, bere hizkuntzaren aldarrikapenarekin, jende sortzaileak jartzen du («klasizismo gortesau aristokratikoaren aurka, dena araulotua, herriaren jeinu edo gogoaren xalotasun eta tolesgabetasuna maite da, sentimendu artifiziogabea, barbaroraino naturala –herri rousseautiarra²⁵»). Beraz, izpiritu erromantikoa (*Geist*) zer edo zer izatekotan, esentzia ez beste ezer da: kreaioa, aldakortasuna, ekinbidea. Eta berdin *Volksgeist* herriaren izpirituarekin: izpiritu unibertsalaren agerpen historikoak dira, garai eta toki zehatz batean pertsona batzuek sortuak, eta hizkuntzatik abiatuz, kultura, ohiturak eta legeria ere sortzen dituen. Ideia errepikatuz berriro, *Volksgeist* guztiz esentziaren kontrakoa da, dinamika da, askea da, kreatiboa.

Are gehiago, modu esentzial-abstraktu batean, frantses filosofiak ulertu du ulertzekotan, «herrien karakterearen» zentzuarekin: XVII. mendetik, frantses hizkuntzaren *facilité et clarté* naturala aldarrikatzen zen, naturala eta arrazionala, filosofiaren hizkuntza. Hau da, hizkuntza batek, arrazionalismo frantsesarentzat, berezko izaera (esentzia) du, baterako edo besterako proposagoa (hobea). Eta frantses filosofiaren ildotik jarraituz, herri bakoitzak, Rousseauk (1712-1778) *Émile* ezagunean dioskunez, «karaktere propioa eta zehatza» du, «izpiritu» edo «jeinu» bat, bere hizkuntzaren bitartez adierazia. Frantses iraultzaren garaian, frantses hizkuntzak frantses herri iraultzailearen karakterea adierazten du, mundu ikuskera berri bat, iraultzailea. Horrela, gainontzeko hizkuntzak Erregimen Zaharraren hondakin lirakeke, desagertu arazi beharrekoak –eta paradoxikoki, monarkia absolutuaren eredu zen frantses hizkuntza da iraultzaren hizkuntza, ez besterik. Aurretik, «izpiritu» eta «jeinu» Voltairek (1694-1778) erabili zuen.

25 *ibid.* 72.

Autore horrentzat, jende izpiritu natural-arrazionala beti berbera da eta hori ematen ez denean, herri ezberdinek kultura antinaturalak dituzte, grinak eta superstizioak baldintzatuta.

Guzti hori kontuan harturik, Sabino Aranaren pentsamendua urrun kokatzen da koordenatu erromantikoetatik, eta nonbait nazioaren ikuspuntu esentzialista bat jaso badu, frantses filosofiaren ildotik letorkioke—eta argi dago, ez da hala. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, XIX. mende bukaerako testuinguru kultural eta filosofikoa arras ezberdina eta urrundu da bai lehen frantses iraultzatik eta bai ideal erromantikoetatik, eta hortaz, ez da baliagarria izango azalpen historiko batean, nazioaren iraultzaile/erromantiko ikuskera aurkako batzuei buruz hitz egitea. Kritika hori, eta Azurmendiren lanean ere jasotako erromantizismoaren ulerkerak, bere egiten dute bai Igor Ahedoren eta bai Janete Silveiraren doktore tesiek²⁶. Azken honek, nazionalismo etniko/zibiko banaketaren izaera analitiko hutsa salatzen uzten du, zeinak errealitate historiko oso konplexua erabat sinplifikatuko bailukeen. Izan ere, nazionalismo zibiko bezala hartzen den adibide frantsesak, adibidez, joera nabari eta esplizitua du homogeneousazio kulturalerako, are gehiago, «etnizida» da nazioaren kultura bezala hartzen ez dituen ezaugarri kulturalekin (batez ere hizkuntza ezberdinak). Ulertu dezakegu frantses filosofiaren ildoari jarraiturik.

Guk ere sinplifikatuz kasu honetan, esan dezakegu nazionalismo etniko bezala definitua izan denak, hiritarren Estatu bat eraikitzea bilatu duela, eta alderantziz, nazionalismo zibikoak, kultura bakar bat (nazionala) eraikitzea bilatu duela. Beraz, non dago ezberdintasuna nazioa ulertzeko moduan? Biek ala biek bai ikuspuntu zibikoa eta etnikoa uztartzen dituzte.

Eta hitz egitearen poderioz, gu ere erori gara sarreran aipatu nazionalismo eta sentimendu nazional kontzeptuak nahasteko joeran. Orainxe argituko dugu posizioa: nazio sentimenduak ez dira inolakoak berez (zibikoak, etnikoak edo dena delakoak); izaera ematen diena, nazionalismoak dira (mugimendu politiko antolatuak, beren ideologiarekin). Horrela, prest gaude onartzeko Sabino Aranaren ideologiak euskal nazioa modu esentzialista batean ulertzen zuela, baina horrek ez du esan nahi euskal sentimendu nazionala esentzialista denik, baizik eta kasu hartan horrela izan zela. Goazen beraz, Aranaren ideologiari buruz hitz egitera.

²⁶ AHEDO, *op.cit.* eta Janet SILVEIRA ABRÃO: *Nacionalismo cultural y político: la doble cara de un proyecto único: Cataluña*. Tesis Doctoral, Universitat de Barcelona, Universitat de Barcelona, Barcelona, 2007.

3. SABINO ARANAREN IDEOLOGIAZ

La afirmación de la identidad nacional vasca constituyó, sin lugar a dudas, el núcleo de la formulación doctrinal de Arana (...) para Sabino Arana, raza, lengua, historia y religión eran los cuatro rasgos constituyentes que avalaban de manera incontrovertible la identidad nacional vasca (...) Arana, por tanto, no fue el inventor del racismo vasco, pero sí lo llevó a su extremo y lo convirtió en el centro de su ideología²⁷.

Idea horren arabera, Sabino Aranaren ideologia euskal nazioaren kontzepzioetik eratorritzen da, eta horrek, arrazista egiten du. Hau da, aipatu naziotasun etniko/zibiko dikotomiako topikoetatik ulertzen da nazioa. Esan nahi dut badirudiela Sabino Arana espainiar naziokoa, edo beste batekoa, balitz, nazioa ezberdin ulertuko lukeela (edo, behinik behin, horretarako eskubide teorikoa lukeela). Gorago esan bezala, lan honetan nazioa ez dugu ideologia sortzaile bezala ikusten, baizik eta ideologiaren proiektioaren jomuga emozional bezala. Beraz, ikuspuntu honetatik, bere ideologiaren oinarri diren hizkuntza, arraza, historia eta erlijioa zer diren Sabino Aranarentzat da ulertu eta azaldu beharrekoa, eta nola eragiten duen horrek nazioa ulertzeko duen moduan (izan euskal nazioa, kubatarra, edo finlandiarra).

3.1 Hizkuntza eta arraza

Erromantizismoaren inguruan hitz egitean konturatuko ginenez, ondoriozta dezakegu hizkuntzari ematen dion garrantziarengatik egiten dela Sabino Aranaren eta XIX. mende hasierako erromantikoen arteko lotura. Litekeena da abandotarrak zerbait irakurri izana Humboldtren inguruan (euskal lurraldeetan ibili zen eta «euskal nazioaz» hitz egin zuen), baina ez besterik. Erromantikoen *Volksgeist* delakorik jada ez da ageri *fin de siècle* jendartearen (hurrengo paragrafoak Azurmendiren lanean²⁸ oinarrituta daude).

Volksgeist kontzeptua esanahi erromantikotik aldendu zuena Hegel (1770-1831) izan zen: filosofo alemaniarrek, bere dialektikaren baitan, Italia eta Espainiaren izpiritua aurkakotu zituen, eta aurkakotze horretatik sortutako hegoaldeko Europar izpirituari Frantzia eta Ingalaterraren dialektikatik sortutako izpiritua kontrajarri zien; mediterraneoko eta atlantikoko bi izpiritu horien antitesia, azkenik, izpiritu germaniarrek sintetizatuko luke, eta berori Prusiar Estatuaren garapenean adierazita legoke. Beraz, lehen aldiz, lotu egiten dira Hegelekin *Volksgeist* eta Estatuak. Halere, oraindik, izpiritu horiek guztiak izpiritu unibertsal bakarraren adierazpen lirateke, baina jada hizkuntzatik Estatura iraganda (herri gogotik «izpiritu nazionalera») —beste era batera esanda, Estatuak herri gogo historiko-dinamikoa Historia Unibertsalera altxatuko luke).

27 DE PABLO y MEES, *op.cit.*, págs. 11-12.

28 Joxe AZURMENDI: *Volksgeist, Herri Gogoa. Ilustraziotik nazismora*, Elkar, Donostia, 2007.

Lotura horri, etnopsikologiaren (*Völkerpsychologie*) garapena gehitu behar zaio, XIX. mendearen bigarren erdian *Volksgeistaren* zientzia bezala ezagutua: Humboldtten lanak irakurriak zituen Steinthal (1823-1899) hizkuntzalariak garatu zuen kontzeptua eta Wundt (1832-1920) psikologoa izan zen ordezkari nagusia. Azken honek *Geist* (izpiritua) beharrean *Seele* (arima) hobetsi zuen, eta horrekin batera *Volksseele* edo herrien psikologia. Ezagutza horren proiektua, historiako garai bakoitzean hizkuntzak, mitologia, artea, jendarte antolaketa, etab. elkarrekin konparatzea zen, eta garai bakoitzak arimaren zein garapen maila zuen zehaztea. Hortaz, XIX. mendearen bigarren erdian, jada *Volksgeist* berba asago dago erromantikoez ematen zioten esanahitik, eta Estatuari, psikologiari eta garapenari (Progresoa) lotuta ageri da. Sabino Aranak kontzepturen bat jaso bazuen *Volksgeistaren* inguruan, bi belaunaldi geroago, ez zegoen jada hizkuntzarekin harremanak. Harremanik edukitzekotan, XIX. mende bukaerako modako hitzarekin zuen: arraza.

Renan (1823-1892) historialari frantsesa izan zen hizkuntza eta arraza lotu zituen, *Volksgeist* adiera *génie de race* bezala itzuliz 1848an: arraza/herri bakoitzak, bere instintuaren (ez izpirituaren edo indar unibertsal jendatiar baten) ondorioz sortzen ditu hizkuntzak. Hau da, lehenik arraza dago, eta ondoren hizkuntza –beste alegiazko lotura bat eraiki daiteke hemen Sabino Arana eta filosofia frantsesaren artean, alemaniarrarekin baino errazago.

Hamarkada bat beranduago, Darwinen (1809-1882) lanaren argitalpenak arrazaren kontzeptua lehen plano sozial eta kulturalera eraman zuen eta hizkuntzari dagokion aplikazioan, hizkuntza ezberdinak jende arraza ezberdinekin lotzen dira –bakoitzaren ezaugarri anatomikoez baldintzatuak izanik aldaera ezberdinak. Horrela, erabat arrunta zen hizkuntzak, herriak eta arrazak erlazionatzea XIX. mende bukaeran.

Beraz, ez da soilik Sabino Arana ez zela bakarra izan arrazaz hitz egiten garai hartan, baizik eta arrazari buruz aritzea zela gauzarik normalena. Horrela diosku Azurmendik:

Zientzia eta pentsamenduaren historian ohitura dago arrazaren kontzeptua eta arrazialismoa ezkutatzekoa, hori eszentrikoren batzuen eldarnioa izana bagenu bezala, ideologiko eta politiko hutsa, ez zientifikoa. Horrela, arrazismoaren beraren esanahia bazterrarazi eta – gure historia zientifikoa marjinala izan bagenu bezala – nolabait banalizatu egiten da. Alabaina, arrazaren kontzeptua eta «sozial-darwinismoa» gabe ez dago ulertzerik positibismoa, giza eta gizarte zientzia modernoek sorrera (soziologia, antropologia)²⁹.

Arrazen teoria eta jendartearen garapenaren ikuskera positibista uztartuta, Europa osoan zabaldu zen batez ere alemaniar jendartearen tipifikatutako *völkisch* mugimendua, garapena arrazen berezko instintuei loturik. Garapenean zenbat eta gorago joateko, arraza horiek garbitu, purifikatu beharri buruzko hausnarketa zen. XIX. mende bukaerako jendartearen nazioen/Estatuen/herrien/arrazen dekadentzia eta erregenerazio beharri buruzko ideiek gurutzatuta dago erabat. Sabino Arana ulertzeko moduetako bat, testuinguru horretan Bilbotik eginiko arrazaren erregenerazio-proposamen legea da, Jon Juaristik iradokitzen duen eran:

Nada tiene de extraño, en tal sentido, que fuera precisamente la crisis de la última década del XIX, con la guerra de Cuba y Filipinas, el contexto en el que emergieron los nacionalismos periféricos, estrictamente contemporáneos de los regeneracionismos y del nacionalismo español de la generación del 98. Porque el nacionalismo vasco no fue en su origen (o lo fue solamente en sus aspectos más superficiales) una reacción a la industrialización del país y a la consiguiente crisis de la sociedad tradicional, como se ha dicho repetidamente, sino una consecuencia directa de la disolución del imperio. En ese contexto – el de los años anteriores y posteriores al Desastre – comienza la elaboración delirante del mito nacionalista de una primitiva patria vasca que habría perecido bajo la opresión de la España Imperial³⁰.

Goian jasotako aipuari jarraituz, «euskal aberri primitibo» horren historiaren eraikuntzara pasako gara. Aurretik baina, arrazak mende arteko Bilboko testuinguru zehatzean duen esangurare inguruan zertxobait sakonduko dugu. Jarraian datorren argudiaketa EHUKo irakasle Javier Díaz Freireren proposamenetik dator³¹, zeinak historiografiako *embodiment* korrontearen baitan emozioek eta gorputzak identitateen garapenean duten garrantzia azpimarratzen baituen.

Euskal gorputzaren inguruko XIX. mendeko kontzepzioa, Aro Berrian zehar Europar Elizaren babespean eman zen emozioen erregulazio eta bizitza publiko zein pribatuaren «zibilizazio» prozesuaren ondorio bezala ulertzen da. Aro Garaikidean, euskaldunen gorputzari lotutako ezaugarrien idealizazio prozesu bat eman zen, berorien garbitasuna, pertsonen arteko harremanen eta dantzen moralitasuna, laguntasun irmoa, autoritateari errespetua, sentimenduen eustea, zintzotasuna, etab. azpimarratuz. Horrela, kaparetasun unibertsalaren harrotasunari lotuta,

30 Jon JUARISTI: *El bucle melancólico. Historias de nacionalistas vascos*, Espasa, Madrid, 1997, pág. 33

31 Javier DÍAZ FREIRE: “El cuerpo de Aitor: emoción y discurso en la creación de la comunidad nacional vasca”, *Historia Social* 40, 2001, págs. 79-96.

euskaldunen «fisionomia morala» goratuko zen. Ustezko zibilizazio eta moraltasun hartatik urrun zeuden industrializazioarekin batera iritsitako milaka eta milaka langile familiak. Etorkinen errekurtsio gabeziak eta prozesu industrializatzaileak berak hedatutako miseriak, «bertako» eta «maketo» gorputzen arteko zanga eraiki zuten (euskaldun pobreek Amerikara alde egiten baitzuten eta ez meategietara).

Sabino Aranek «maketoak» beren balizko moralgabetasunarengatik tipifikatu zituen eta gorputz ezberdintasun hori proiektatu zuen sentimendu nazionalera: moraltasuna, zibilizazioa = euskal nazioa; moralgabetasuna, gainbehera = espainiar nazioa. Eta hizkuntza, arrazari lotua *fin de siècle* testuinguruan, gorputzen arteko zanga, zibilizazioaren zanga, mantentzeko modu bezala ulertzen du. Araztu beharreko zanga. Beraz, beste behin ere, Arana oso urruti dago erromantikoek hizkuntza ulertzeko zuten modutik. Horientzat munduarekiko dugun erlazioaren sortzaile eta bitartekari beharrezko bazen, abandonatarrarentzat berezko arrazen, gorputzen arteko ezberdintasunaren ondorio zen, preseski bere garaiko European ulertzen zen bezala.

Gainera, hirugarren faktore batek azaltzen du gorputz zibilizatuak eta zibilizatu gabeak ezberdintzeko grina hori: Sabino Aranaren klase izaerak, burges familiakoa zen heinean. Zentzu horretan, garaiko higienismoaren kultura konpartitzen du. Mugimendu higienistak jendartearen osasun fisiko eta mentala hartu zuen ardatz bezala eta batez ere hirietan, ekinbide zehatzak proposatu zituen horretarako, hala nola, hirigintza eta eraikuntza araudiak, elikagaien kontrola, alkoholismoaren salaketa, etab. baina berebiziko garrantzia eskaintzen zion hezkuntzari eta moraltasunari, egoera higieniko kaskarrak ez baldintza sozio-ekonomikoei, moral eta hezkuntza faltari baizik, leporatuz.

Azken finean, Díaz Freirek dioskunez, diskurtso higienista, burges gorputzaren babeserako eraikia izan zen, eta burgesia nazio liberalaren gidari zen heinean, nazioaren osasunaren mantentzerako. Beraz, gorputz «maketoak», hots, langileenak, nazioaren biziraupena zalantzan jartzen zuen eta Aranek bazterketarako eta isolatzetarako duen grina, nazioaren babesteko grina burgesa ere da (Bilbon kolera izurriteak izua hedatzen zuen garaian) –beste batzuek «burdinazko zirujau» bat bilatu zuten eran, beren nazioan senda zezan.

3.2 Historia eta erlijioa

Lehenago aipatu bezala, Voltairerentzat arrazoimena eta morala bat eta bakarra da, eta berori aplikatzen duten jendarteak dira zibilizatuak. Frantses filosofiaren oinordeko lez, iraultza frantsesak eta liberalismoak zerotik hasita, arrazoimenean bakarrik oinarrituta, eraiki nahi izan du legedia berria. Hori fikzio ilustratu bat besterik ez da, nahiz eta tresna eraginkorra izan usadio eta foru baliogabeak desagertu arazteko

eta Estatuko legedia anitza uniformatzeko. Eta bestetik, Estatuaren legeak «natural» legez aurkezteko tresna ere bada³². Kasu honetan ere, hizkuntza eta nazioarekin bezala, frantses iraultzaren erauntsiak esentzia abstraktuak zabaltzen ditu.

Horren aurka egin zuen alemaniar Zuzenbidearen Eskola Historikoak (*Historische Rechtsschule*). Nahiz eta legedia arrazionalizatu beharra onartu, beharrezkoa zekusan korrante horrek tokiko berezitasunak legedian txertatzea, arrazoimen absolutuak legedia idealak sortzeko dituen mugak onartuz (liberalismo kontserbadorearen praktikak ildo hori jorratu zuen XIX. mendean zehar, euskal kasuan, bi karlistaldien arteko erregimen foralak egin bezala). Horrela, zuzenbidea historiaren dinamikaren ondorio bezala ulertzen dute, dinamikoa historia bezala eta aldakorra. Kontua da historikotasunean tematzeak garapen historikoa bera izoztera eta esentzia bihurtzera eraman dezakeela, eta nahasketa morokil bihur daiteke aipatu arrazaren modaren testuinguruan.

Guizot (1787-1874) historialari frantsesak sendotu zuen historia eta arrazaren arteko harremana. Frantziako historia bi arrazen (galiarrak eta frankoak) arteko elkarketa prozesu luze bezala azaldu zuen, goren unea 1789an edukiko zuena. Horrela, erregeak eta gerlariak alde batera utzirik, historia arrazena/herriena (garaiko diskurtsoetan ez da bereizten) izatera igarotzen da. Historiako heroia herria/arraza/nazioa da.

Laburbilduz, XIX. mendearen bigarren erdian arraza, hizkuntza, nazioa, Estatua eta historia elkarloturik topatzen ditugu garaiko testuinguru kulturean, baina, esan bezala, erromantizismoak ulertzen zituen oso modu ezberdinean. Orain bidea alderantziz egiten da: izpiritu unibertsalaren adierazpena hizkuntza bazen eta horrek gure munduarekiko harremana eraikitzen bazuen historiako leku eta garai bakoitzean, orain lehenik arraza (biologia, zientzia) dago eta horren instintuaren (esentziaren) adierazpen da bai hizkuntza eta bai historia.

Beraz, bai arrazaren kontzeptuaren erabilerarekin, bai historiaren erabilerarekin eta bai nazioaren osasuna garbi mantentzeko grinarekin, Sabino Arana moda modan dago bere garaian –Unamuno edo Ortega y Gasset loriatuak bezala, zeintzuek antzeko terminoetan hitz egiten zuten, baina beren kasuan, espainiar nazioari begira. Zerk egiten du beraz, Aranaren ideologia eta bere nazio sentimendua (euskalduna) ulertzeko modua hain polemiko, hain apurtzaile?

Pedro Chacón EHUKO irakasleak proposatzen duenez³³, erlijiora jo beharra dugu hori ulertzeko. Chacónen argudiaketa jarraituz, lehen

32 José AZURMENDI, *Volkgeist...*, págs. 181-192.

33 Pedro José CHACÓN DELGADO: “Introducción al estudio de la etapa barcelonesa de Sabino Arana Goiri (1883-1888)”, *Letras de Deusto*, nº 42-134, 2012, págs. 155-182.

euskal nazionalismoaren ideologia eta praktika politikoa –maximalismo katolikoa, gainontzeko indar politikoezko auto-bazterketa eta doktrinaren purutasuna– Sabino Aranak Bartzelonan jasotako eragin integristak azalduko luke.

Horrela, jeltzaleetasunaren proposamenaren originaltasuna integrista katolikoaren eta arrazaren arteko loturarena dela defendatzen du. 1887-1888 artean –Sabino Arana Bizkaira itzultzen den garaian– karlista eta integristak behin betiko banatzean, integristek beren burua bakarrik onartuko dute katolikotzat/moraltzat. Eta gainera, aldarrikapen monarkikoa bazter uztean, espainiar erregetzarekiko leialtasuna ere hautsiko dute, espainiar nazio sentimenduarekin mozteko bidea ere irekita utziz³⁴. Chacónek aipatzen dituen integrista politikoen ezaugarriak, erraz dira topatzen lehen jeltzaleen artean: liberalismoarekiko erabateko aurkakotasuna, Errestaurazioko erregimenarekin kolaboratzeari ukoa, Eliza defendatzeko lehentasun erabatekoa (Eliza beraren hierarkiaren gainetik ere), erlijio katolikoaren eta fedearen jabetze absolutua eta politika intransigentea.

Beraz, ezaugarri horiek Abandoko burges batek goian aipatu euskal «fisionomia moralera» eramango ditu. Arrazaren inguruko moda europar *völkisch*aren testuinguruan, integristaaren intransigentzia eta fedearen eta moralitasunaren jabetza absolutua, euskal nazioa *versus* espainiar nazioa dikotomiara aplikatuko ditu –integristek egin zuten espainiar nazioa (integristak, benetako espainiarrak) *versus* atzerritarrak (beste guztiak, arraza mestizokoak) kalkatuz.

Aipatu euskal sentimendu nazionala bere jardun politikoen erdigunean jartzean, euskal nazionalismoa agertuko da aktore sozial eta politikoen gisan. Mugimendu politikoen horrek, bere garaiko klabe kultural eta ideologikoen hautatuak identifikazio nazionalera proiektatuko ditu: hizkuntza, arraza, historia eta erlijioa. Berriro adierazi nahi dugu, hortaz, euskal nazionalismoaren ideologia ez dela eratortzen balizko nazioaren ulerkera erromantiko batetik. Alderantziz, *fin de siècle* kontestu europar, espainiar eta bilbotarrean aurkitzen ditugun elementuak eramaten dira nazioarekiko atxikipen sentimendura eta praktika politikora. Beraz, buelta eman beharrean gaude José Luis de la Granjaren azalpenari, zeinak hala dioen:

Al comienzo del siglo XIX, el surgimiento del nacionalismo vasco de Sabino Arana supuso una doble ruptura, tanto con España como con una parte de la sociedad vasca, en la que fue un factor de división³⁵.

34 DE LA GRANJA, *op.cit.*, pág. 12.

35 *ibid.*, pág. 119.

Gutziz kontrakoa defendatzen dute, puntu honetan bederen guk egingako argudiaketarekin bat etorritz, bai euskal nazionalismoaren sorreraren inguruko lanik osatuena burutu duen Javier Corcuera, eta bai aipatu Javier Díaz Freireren proposamenak:

No es Arana el creador de la irracionalidad antimaketa o racista. El solo hecho de que algunas de las frases antes recogidas no supusieran el aislamiento político de su autor, sino que llevaran al partido por él fundado a un elevadísimo número de vizcaínos, quiere decir que estos vizcaínos encontraron en Arana la correcta formulación de lo que ellos *ya* pensaban (...). El fundador carismático no crea desde la nada, sino que formula con coherencia nuevos elementos ya existentes en la sociedad en que vive³⁶.

Al construir el cuerpo vasco y su simétrica negación, el maqueto, el discurso sabiniano continuaba el discurso de la civilización de las costumbres, desplazando hacia los dos grupos considerados las emociones que el proceso de la civilización contenía (...). Lo que hizo Arana fue politizar esas emociones negativas y aprovecharlas para fundar sobre ellas la diferencia nacional vasca. No crearlas. Su existencia ya se daba con anterioridad y puede adivinarse en personas no nacionalistas³⁷.

3.3 Nazio berri bat

Esan dugunez, elementu kultural eta ideologiko guzti horiek sentimendu nazionalera proiektatzean eta politikara eramatean, euskal nazionalismoaren sorrera eta garapena ematen da, hau da, euskal nazioarentzat Estatu bat eratzeko subiranotasuna (kontzeptu oso liberala bestalde, kontuan hartuta nahi eta nahi ez integristak ere liberalismoaren mendean zeudela) aldarrikatzen zuen mugimendu politiko antolatua. Baina zergatik ez du Sabino Aranaren mugimenduak España erregeneratzeko eskatzen, beste askok proposamen ideologiko anitzetatik egin zuten eran? Noiz eman da nazio berri bat aldarrikatzeko aukeraren irekitzea, espainiar nazio sentimenduaren etetea? Kasu honetan, espainiar sentimendu nazionalari buruz jardun beharrean gaude. Espainiar iraultza liberalaren hastapenean, Antzinako Erregimena tropa frantses iraultzaileek indargabetua zegoen eta iraultza frantsesaren aurkako gurutzada legez egin zen iraultza³⁸. Beraz, nazio sentimenduen loratze garaian, hein oso handi batean, espainol sentimendua frantsesari oposizioan garatu zen, baita, euskaldunen kasuan ere:

36 Javier CORCUERA: *La patria de los vascos: orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1903)*, Taurus, Madrid, 2001, pág. 390.

37 DÍAZ FREIRE, *op.cit.*, pág. 91.

38 Joxe AZURMENDI, *Espainiaren arimaz*, Elkar, Donostia, 2006.

Frantzesta urteotan ere suertatzen da, estraineko aldiz, hego-euskaldunak hasten direla politikoki Espainiaren ideia berriarekin kidetzen. Frantsesen kontra sortu ziren *Junta*, *Guerrilla* prediku-izkirio eta zabalkunde politikoan oro har *nazio* hitza, *Espainiarekin* berdinkatua, hedatu zen azken zokoetaraino (...). Laborari eta herritar aunitzek frantsesen kontrako erasoetan izan zuten bere eskola, gaztelera ikasteaz batera, Euskal Herriatik kanpoko lekuak eta gizakumeak ezagutzen zituztelarik gerrila-taldeen partaide bilakatu baitziren eta urte gutiren buruan harmagizon, sortzen ari zen Harmada Nazional hartako baloreak, hizketak, sinboloak eta atxikimenduak bereganatuz³⁹.

Eliza eta nobleziak ez ezik, frantsesen aurkako matxinadaren kontakizuna elite liberalek ere egin zuten, espainiar herria jarriz historiaren erdigunean (garaiko frantses historiografiak egin zuena euren kasura moldatuz). Eraikitako istorioaren arabera, frantses inbasorearen aurkako matxinadan, herriak (liberalismoarentzako subiranotasun subjektua dena) Antzinako Erregimeneko, absolutismoko, indarren aurka egin zuen, behinola Habsburgotar dinastiaren aurka egin zuen eran. Horrela, Errege-erregina Katolikoek garaitik dekadentzia prozesu bat kontatzen da, monarkia eta herriaren arteko zatiketarena, zeinak bukaera frantses iraultzaren aurkako porrotean duen. Orduan, Erregimen Zaharrak amore eman zuen frantsesen aurka, baina ez herri espainolak eta horregatik behar du izan orainaren eta etorkizunaren subjektu (aldarrikapen liberalaren zentzua hartuz orduko politikagintzan).

Karlistek, espainiar herri beti jator horren eta aldarrikapen dinastikoaren arteko lotura garatu zuten, frantsesari, inbasioari, amore ematen zion beste adar dinastikoaren aurkako oposizioan artikulatuz Españarako beren proiektu politiko eta soziala. Baina III. Karlistaldiko porrotaren ondoren, beren proiektu hori azpiratua izan zen, kanporatua espainiar proiektu nazionaletik. Proiektu horren kanporatzea eta horrek euskal eremuan izan zuen garrantzia azaltzeko, are non eta sentimendu nazional alternatibo bat agertu zen, Fernando Molinaren lanera joko dugu⁴⁰. 1868ko *La Gloriosa* iraultzarekin, espainiar identitate ofizial iraultzaile liberalak, aurreko hamarkadetan Españako sentimendu nazionala ulertzeko beste moduekin borrokatu behar izan zuen eta azken Karlistaldiaren eztabaekin, ordura arte espainiar identitatearen parte izan zen euskal foruzaletasuna, espainiartasunaren aurkakotzat hartu zen.

39 LARREA, *op.cit.*, pág. 77.

40 Fernando MOLINA APARICIO: “«*Delenda est Carthago?*». La nación española y los fueros vascos (1868-1898)”, en Castells, Cajal y Molina (eds.): *El País Vasco y España: identidades, nacionalismos y Estados (siglos XIX y XX)*, Servicio editorial de la Universidad del País Vasco, Bilbao, 2007, págs. 65-84.

Euskal foruzaletasuna liberalismo moderatuaren ezarkuntza eta egonkortasun elementu izan zen, foru legediak hiritartze liberal testuinguruan txertatu eta garatu zirelarik, gero eta garrantzia gehiago hartzen zihoan literatura foruzaleak jantzirik. Horrela, XIX. mendearen bigarren hereneko Espainian ez zegoen arazorik legedia liberalean txertatzeko euskaldunen jeinu kolektiboaren (agian une hartan bai, zentzu erromantikoan) adierazpen bezala hartzen ziren foruak eta euskara. Bi faktore horiek –legeria eta hizkuntza– erlijiotasunera ere loturik ulertzen ziren (elite liberal moderatuak katoliko ziren heinean) eta 1868 ondoren, azkar pasatu zen foruzaletasuna gurutzada katolikoa aldarrikatzen zuten karlisten aldera. Modu horretan, espainiar identitatearen osagarri izan ziren euskal foruak, hizkuntza eta katolizismoa, kausa karlistara loturik geratu ziren. Gerraren dinamikan, euskaldun-erlijioso-karlista eta espainiar-liberal dikotomia agertzen eta sakontzen joan zen, zanga are gehiago irekiz gerraosteko armada liberalaren okupazioak eta Foru Aldundien deuseztapenak (nahiz eta kontzertuen sistemarekin eskumen zabalak mantendu praktikan).

Errestaurazioaren sistemako Espainian, erregioa da lurralde erreferentzia nagusia maila sinboliko eta identitarioan, eta XIX. mendearen bigarren erdian, tokiko identitateek garrantzia handia izan zuten jendartearen nazionalizatzeko (sentimendu nazional espainola finkatu eta garatzeko orduan); ez Espainian bakarrik, Europa osoan baizik⁴¹. Errestaurazio garaiko testuinguru kontserbadorean, eskualdea komunitate egonkor eta aldaezin bezala irudikatzen zen eta espainiar nazioaren oinarri bezala ulertzen zen. Mendearen azken zatian, zientzia biologikoen *boomaren* garaian, nazioa osatzen zuen organismo bezala ulertzen zen, kausa geografiko eta etnikoen ondorio⁴².

Fin de siècle krisian, nazioaren ahultasun sentimendua hedaturik, Espainia autentikoa, benetako arima, «*lo castizo*», bilatu zen eta berori andaluziar eta batez ere, gaztelar eskualdeetan ikusi nahi izan zen. Espainiar identitateari lotu zitzaizkion zezenketak, zarzuela, flamenkoa, etab. Kontua da, gorago esan bezala, euskal eskualdea eta bere sinbolo nagusiak (euskara, foruak) eraikuntza horretatik kanpo geratu zirela, karlismoaren porrotarekin lerrotatuak eta garaituak. Umezurtz. Sabino Aranak, sinbolo erregional horiek (literatura foruzaleak hamarkadatan loriatuak) sentimendu nazionalera bideratu zituen, baina oraingoan integrisimo katolikoaren eraginak sakralizatutako euskal naziora.

41 Ferrán ARCHILÉS CARDONA: ««Hacer región es hacer patria». La región en el imaginario de la nación española de la Restauración», *Ayer*, nº 64, 2006, págs. 121-147, págs. 123-125

42 *ibid.*, pág. 130.

Ikusi dugu nola Sabino Aranaren ideologian faktore anitzak eta osagarriak (edo behinik behin bere doktrina politikoan osagarri bihurtuak) topatzen ditugun, garaiko Europar eta espainiar testuinguruan ohiko zirenak: *völkisch* mugimendua, historia-herria-arraza harremana, kultura eta hizkuntzen mailakatzerako darwinismo soziala, gorputzaren kontzeptu burgesa, integrismo katolikoa eta erregionalismoa. Faktore horien guztien interpretazio kohesionatu bat da proiektatzen duena Aranak euskal naziora, eta ez alderantziz.

Beraz, nazioaren interpretazio etniko eta esentzialista, zibiko boluntaristaren aurkakoa, ez dago maila teoriko-normatibo interesatu batean ez bada. Lehenago argudiatu bezala, dikotomia horrek ez ditu ideologiak edo mugimendu politiko nazionalistak sailkatzen, nazioak baizik. Eta hori praktika historiografikorako ez da baliagarria, testuinguru historikoaren eragina deuseztatzen baitu.

Orain arte, euskal nazionalismoaren historia azaltzeko (ez nazio sentimenduarena, hori beti esentzialista-etnikoa omen delako) «penduluaren teoria» erabili da. Horrela, Sabino Aranaren kontzeptzio nazionalak markatuko luke erakarren polo bat (erradikala) eta berarekiko urruntasun praktikoak bestea (moderatu). Eta euskal mugimendu nazionalistak batera eta bestera ibiliko dira hamarkadetan zehar. Kontuan hartuta Sabino Arana *fin de siècle* garaiko moda-modako gizona zela bere ideologiaren faktore ezberdinei dagokienez, oso zaila egiten da, lan honetan erabilitako hipotesiak eta argudiatzea kontuan hartuta, hark bezala nazioa ulertuko zuen pertsonarik edo jende talderik topatzea XX, mendean zehar, edo are XXI.ean, historiaren joan-etorriei eta testuinguru erabat aldakorrei iragazgaitz balira bezala.

Hain zuzen ere penduluaren metaforaren izaera artifiziozkoa salatzen du Joseba Aguirreazkuenaga EHuko historia irakasleak⁴³. Aranarekiko hurbiltasuna/urruntasuna, batez ere autonomia/independentzia klabearen ulertzen du *El Péndulo Patriótico* baina, Aguirreazkuenagaren kritikari jarraituz, metafora horrek erpinak bakarrik zehazten ditu (mugimendu politiko anitzak batetik bestera modu mekanikoan mugituko balira bezala) eta ez balizko pendulua batera edo bestera mugituko luketen indar horizontalak: korrante ideologiko edota kulturalak, euskal jendarteko dinamikak, Estatu espainiarraren ekinbidea... edo dena delakoa.

Esate baterako, ikuspuntu historiografiko batetik ezin da azaldu 1920ko hamarkadako EAJ/Aberri zatiketa penduluaren erpin batera edo bestera hurbiltzearekin: Sabino Arana independentistena integratza

**4. ONDORIOAK:
SABINOREN
HERENTZIA?
EUSKAL NAZIOAREN
ETA EUSKAL
NAZIONALISMOAREN
AZTERKETA
«NORMALIZATUZ»**

katolikoa zen eta bazterketa politiko erabatekoa exijitzen zuen, baita katalan edo kubatar mugimendu nazionalistekiko ere. Beste testuinguru historiko oso ezberdin batean, Aberri talde politiko independentistako zenbait kidek CNT (anarkistak!), Estat Catalá (independentista katalan ez konfesionalak!) eta Sobietar Batasunarekin (!) altxamendu bateratu bat egitea negoziatu zuten Primo de Riveraren diktaduraren aurka. Beraz, praktika politiko eta nazioa ulertzeko modua oso ezberdinak dira, logikoa denez hiru hamarkada pasata.

Sabino Arana bezala, Aberrikoak erradikalak zirela, noski. Eta, adibidez, zenbait hamarkada geroago ETA eta bere inguruan egituratutako ezker abertzalea (ENAM) ere erradikala zela, dudarik ez. Baina erradikalitasun hori ez datorkie nazioaren ulerkera zehatz batetik, aipatu erreferentzia historiografikoek aditzera ematen duten eran; are gutxiago Sabino Aranaren doktrinatik (nahiz eta euskal mugimendu nazionalista nagusiaren fundatzailearen lanak batzuek zein besteek irakurri zituzten). Erradikalitasuna testuinguru historiko zehatz batean proposatzen duten diskurtso politiko zehatz batetik eratoritzen da (Sabino Aranaren kasuan bezala) eta hori, gainontzeko ideologia guztien moduan Aro Garaikidean, sentimendu nazionalera (edo bere bitartez) proiektatzen dute. Lanaren sarreran proposatutako metafora berreskuratuz, nazioak praktika politiko erradikal baterako katalizatzaile bezala funtzionatuko luke, baina ez praktika horren iturburu bezala.

Horrekin ez dugu esan nahi bai Sabino Aranarentzako, bai Aberrirentzako edo ENAMentzako, nazioak eta sentimendu nazionalak ez dutenik beraien diskurtso politikoaren erdigunea osatzen. Baina bai erlatibizatu egin behar dela eta mugimendu politiko-sozial horien ideologia zentzu zabal batean ulertu behar dela. Modu horretan, euskal nazionalismoaren –batez ere praktika politiko erradikala izan duten taldeen– gaiaren trataera historiografikoan beharrezkoa dugu identifikazio nazionala erlatibizatzea, bere azterketa «desproblematizatu» nahi badugu.

Izan ere, «euskal nazionalismo erradikala» bezala definitu dena (1898tik gaur egunera arte!), «arazo sozial» bat bailitzan ulertu da gehienetan, nazioa ulertzeko modu irrazional bat (konpondu beharrezkoa edo) oinarri zuena eta «jendarteari» arazoak zekarziona. Ikuspuntu historiografiko batetik, askoz jota «arazo historiografiko» bat izan daiteke, analizatzeak merezi duen zerbait den heinean, beste edozein fenomeno historiko izan daitekeen legez. Eta inolaz ere ezin da ulertu jendartetik at dagoen zerbait bezala –zeinak jendartearengan eragingo lukeen–, baizik eta jendarteko agenteetako bat bezala. Artikuluan zehar defenditu dugun ideia azpimarratuz, nazionalismo mota teorikoei buruz hitz egiteak (izan etniko edo zibiko, erradikal edo moderatu) ez digu laguntzen, behinik behin alor historiografikoan, gaia bere sakontasun osoan lantzen. Alderantziz, aurreiritziak eta interpretazio ahistorikoak aldeztu dituzte, gaiaren konplexutasun handia alboratuz maila teorikoan.

Antzeko ondoriora iritsi da berriki Kern nazionalismo etniko/zibiko dikotomia aztertu ondoren: “The location of entire national traditions on one or the other side of the dichotomy rather than studying its internal dynamics does nothing to explain the character of its nationalism⁴⁴”.

Ezin ukatu euskal nazionalismoari buruzko lan akademiko historiografiko nagusiek⁴⁵ izugarrizko oinarria eskaintzen dutenik etorkizuneko ikerketetarako, batez ere informazio kantitateari eta iturrien kalitatezko erabilerari dagokionez. Baina autore guzti horiek, ñabardurak ñabardura, marko teoriko berbera konpartitzen dute: nazionalismo zibiko eta etnikoaren arteko zatiketarik abiatuz euskal nazionalistak erradikal eta moderatu bezala sailkatzen dituen. Aurreko bi dikotomia normatibo-teoriko elkarlotu horietatik (etniko vs. zibiko, erradikal vs. moderatu) eratortzen ditu garai ezberdinetako mugimendu nazionalistak interpretatzeko oinarriak.

Horren aurrean, sarreran mahaigaineratu dugun bezala, argi ezberdindu beharko lirateke nazio sentimendua eta mugimendu nazionalista. Nazio kontzeptuak edo sentimendu nazionalak berezko ezaugarri ideologikorik ez duela defendatu dugun heinean, euskal komunitate nazionalaren analisia «normalizatu» beharra dago, gainontzeko komunitate nazionaleri buruzko ikerketekin parekidetuz.

Horrela, adibidez, pertsonen identitate nazionala ulertzeko moduan dituzten eragin esparru ezberdinen garrantzia har daiteke abiapuntu bezala nazio sentimendua ulertzeko, espainiar identitate nazionala ulertzeko proposatu den gisan⁴⁶: esparru publiko-ofiziala (Estatua eta bere administrazio eta aparatu guztiak), esparru publiko-ez ofiziala (alderdi politikoak, mugimendu sozialak, kultur mugimenduak, erakunde erlijiosoak, etab.) eta esparru pribatua (familia eta lagunartea).

Hiruesparru horien baitan, norbanakoen «nazio esperientziek» garrantzia hartuko lukete, edo beste era batera esanda, nolakoa den kolektibotasun nazional sentipenaren bizipena norbanakoen egunerokotasunean: masa komunikabideen mezuen jasotze eta interpretazioetan, kirol profesionalaren jarraipenean, bakoitzaren iritzi politiko-sozialetan, gainontzekoekiko harremanetan, kontsumitzen ditugun produktu edota zerbitzuetan, etab. Nazioa norbanakoak bere bizitzari buruz

44 KERN, *op.cit.*, pág. 17.

45 CORCUERA, *op.cit.*, DE LA GRANJA, *op.cit.*, DE PABLO y MEES, *op.cit.*, Gaizka FERNÁNDEZ SOLDEVILLA y Raúl LÓPEZ ROMO: *Sangre, votos y manifestaciones: ETA y el nacionalismo vasco radical (1958-2011)*, Tecnos, Madrid, 2012 eta Gaizka FERNÁNDEZ SOLDEVILLA: *Héroes, heterodoxos, traidores: historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)*, Tecnos, Madrid, 2013.

46 Alejandro QUIROGA: “La nacionalización en España. Una propuesta teórica”, *Ayer*, n° 90, 2013, págs. 17-38.

(pribatua eta publikoa) egiten duen narrazio bezala ere uler daiteke⁴⁷. Azkenik, nazioa egunerokotasunean bizi dugun espazioaren garrantzia ere azpimarratu da⁴⁸: kalea, auzoa eta etxea.

Zentzu horretan, 1) aldaketa politiko eta sozialek aipatu eragin esparruetan duten eragina eta 2) aldaketa horien inguruko norbanakoen interpretazioek sentimendu nazionalen duen eragina aztertzea izan daiteke nazio sentimenduaren eta subjektu politiko historikoen arteko harremanean sakontzeko bideetako bat. Eta bide horretan, iturri pertsonalek eta espazioaren analisiak garrantzia hartuko lukete. Planteamendu horretan, euskal mugimendu nazionalistak (mugimendu politiko antolatutak bezala ulertuak, esan bezala) esparru publiko-ez ofizialeko agente eta subjektu lirateke. Hau da, ez dira sentimendu nazionalak aurre-baldintzatutako mugimenduak, baizik eta alderantziz, norbanakoon nazio sentimenduan eragina duten mugimendu politikoak dira –eta aldi berean nazio sortzaile, eurek ere norbanakoz osatuta dauden heinean. Horrela ulertu behar ditugu mugimendu politiko nazionalistak, nazioak duen pisua erlatibizatuz, beren analisisia euskal nazio sentimendua beren diskurtso politikoaren erdigunean ez duten gainontzeko aktore sozialekin parekatu nahi badugu.

Helburua, azken finean, euskal nazionalismoaren analisi historiografikoa «normalizatzea» da. Bide horretan, nazio sentimenduaren eta mugimendu nazionalisten arteko banaketa erradikala aukera teorikoetako bat bezala mahaigaineratu dugu gure proposamenean, zeina, noski, ñabartu beharko den ikerketan sakondu ahala. Halere, uste dugu egokia izan daitekeela euskal nazioari buruzko ezagutza historiografikoan sakontzeko, mugimendu nazionalistak nazionalizazioaren eragin esparruetako batean kokatzen baititu. Beren papera erlatibizatu egiten da eta norbanakoen esperientziari eta subjektibotasunaren garrantziari atea irekita uzten dizkio.

Laburbilduz, euskal nazioa –edo kubatarra edo finlandiarra– ez litzateke mugimendu nazionalistek eraikitako diskurtso bat eta horren sozializazioa bakarrik izango, baizik eta norbanakoek, jendarteko eragin kontaezinen baitan, beren egunerokotasunean etengabe eraiki eta eraldatzen duten kolektibotasun sentimendu bat.

47 Fernando MOLINA APARICIO: “La nación desde abajo. Nacionalización, individuo e identidad nacional”, *Ayer*, nº 90, 2013, págs. 39-63.

48 Ferrán ARCHILÉS CARDONA: “Lenguajes de nación. Las «experiencias de nación» y los procesos de nacionalización: propuestas para un debate”, *Ayer*, nº 90, 2013, págs. 91-114.